

# Leioa

UDAL ALDIZKARIA
REVISTA MUNICIPAL

Ekaina 2022 Junio Nº 226 Zk.

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eus

# OHITURAK BERRESKURATUZ

Éxito de Umore Azoka Leioa

Kirola eta familia bultzatzen

Conoce la Escuela de Música

leioa

en el centro de tu vida



Leioa
www.leioa.net

Argitaratzailea / Edita:
**Leioa Elizateko Udala / Ayuntamiento de la Anteiglesia de Leioa**
Elexalde z/g 48940 Leioa Bizkaia

## Zenbaki interesgarriak
## Teléfonos de interés:

**Leioako Udala / Ayuntamiento de Leioa**
sac01@leioa.eus | ✆ 94 400 80 00

**Udaltzaingoa / Policía Local**
✆ 94 400 80 21

**Erregistro Orokorra / Registro General**
sac01@leioa.eus

**Ibilgailuak / Vehículos**
✆ 94 400 80 27

**Bulego Teknikoa / Oficina Técnica**
hirigintza@leioa.eus | ✆ 94 400 80 05/06

**Kultur Leioa**
infokultur@leioa.eus | ✆ 94 607 25 70

**Aterpe Leioa Gaztegunea**
gazte@leioa.eus | ✆ 94 405 58 50

**Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal**
liburutegia@leioa.eus | ✆ 94 607 25 74

**Euskara Zerbitzua / Servicio Euskera**
euskarazerbitzua@leioa.eus | ✆ 94 607 25 76

**Kultur Saila / Área de Cultura**
kultur@leioa.eus | ✆ 94 607 25 78

**Gaztelubideko Udal Bulegoa / Oficina Municipal de Gaztelubide**
sac02@leioa.eus | ✆ 94 464 67 22

**Udal Euskaltegia / Euskaltegi**
✆ 94 464 00 02

**Udal Musika Eskola / Conservatorio Municipal**
kontserbatorioa@leioa.eus | ✆ 94 463 86 83

**Udal Kiroldegia / Polideportivo Municipal**
uki.idmleioa@leioa.eus | ✆ 94 400 80 59

**Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales**
gizartezerbitzuak@leioa.eus | ✆ 94 480 13 36

**Behargintza**
✆ 94 400 41 95

**Taxis**
Parada ✆ 94 463 58 66 | Radio Taxi ✆ 94 491 53 53

* Helbide elektronikoak aldatu dira
Se han modificado las direcciones de email



## Leioa jaietan

Azkenean, bi urte geroago, gure jaiez gozatzen dugu berriro. Bai auzoetan, Lamiakoko eta Txorierriren ondoren, bai San Juanekoetan. Aurtengo Lamiako Maskarada ikusgarria izan da, leioaztar guztiok jaietaz gozatzeko irrikitan gaudela erakutsi digu. Egun batzuetan atseden hartzeko eta gure kaleez eta gure jendeaz gozatzeko dugun gogoaren erakusgarri.

Aurreikus daitekeen dibertimendu honetan, gogoratu inoiz ez ditugula gainditu behar besteen askatasunaren eta gozamenaren mugak. Ondo pasatzea bai, noski, baina inoiz ez besteen kontura. Jai-espiritu osasuntsua ez da inor edo ezer kaltetzen duten jarrera edo ekintzekin lausotu behar. Udalak neurri egokiak jarriko dituen arren, bakoitzean dago data horiek ahalik eta gehien gozatzea eta nahi ez diren egoerak saihesteko beharrezko mugak jartzea. Ondo pasatzea eta gozatzea dira helburuak.

Udaren hasiera eta gure San Juan jaiak denontzat pozgarriak izatea.

Festetan ikusiko dugu elkar! ■

## Leioa en fiestas

Por fin, dos años después, volvemos a disfrutar de nuestras fiestas. Tanto en los barrios, tras las de Lamiako y Txorierri, como las inminentes ya de San Juan. La Maskarada, simplemente espectacular, nos ha dejado idea de la gran expectación y las muchas ganas que tenemos todos los y las leioaztarras de disfrutar de un ambiente distinto, de descansar por unos días y dedicarnos a disfrutar de nuestras calles y de nuestra gente.

A la hora de esta previsible diversión, recordar que nunca debemos superar los límites de la libertad y disfrute de los y las demás. Pasárselo bien sí, por supuesto, pero nunca a costa de otras personas. El espíritu sano de fiesta no se debe empañar con actitudes ni hechos que lesionen a nadie ni a nada. Aunque el Ayuntamiento pondrá las medidas oportunas, está en cada uno y cada una disfrutar a tope de estas fechas y poner los límites necesarios para evitar situaciones indeseables. Pasárselo bien y disfrutar son los objetivos.

Que el inicio del verano y nuestros sanjuanes nos resulten gratificantes a todos y todas.

¡Nos vemos por las fiestas! ■

**Iban Rodriguez Etxebarria**. Leioako Alkatea

| **Kirol ekintzak** · Actividades deportivas | **Txosna gunea** · Zona de Txosnas | **Koadrillak** · Cuadrillas |
|---|---|---|

## domingo, EKAINAK 12 JUNIO, domingo

09:00 **XXI CAMPEONATO DE PESCA** "Ayuntamiento de Leioa". Pantano de Lertutxe.

## ostirala, EKAINAK 17 JUNIO, viernes

17:30 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Escalada para tod@s. Errekalde Plaza.
19:00 Apertura de las Barracas. Plaza Lehendakari Agirre (Carbonera).
20:30 Actuación. **EL DILEMA DEL JAMÓN.** Auditórium Kultur Leioa. (12 €).
23:00 Monólogos. **Leioa Comedy night. VIRGINIA RIEZU & NACHO GARCÍA.** Auditorio Aldapa.
23:00 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Competición equipos nocturna. Errekalde Plaza.

## larunbata, EKAINAK 18 JUNIO, sábado

08:00 Activación de Radio. Asociación R.A.M.I. de Leioa. Auditorio Aldapa.
09:00 I. Prueba Popular de Orientación de Leioa. J.R. Aketxe Plaza.
10:00 Exhibición Gimnasia Rítmica – Categoría B. Polideportivo Sakoneta.
10:30 **ANTZINAKO EGUNA – Zona de Txosnas - Elexalde**
Inscripción Concurso de Paella y juegos populares.
Mural Antzinako Eguna.
11:00 Euskal Zumba Antzinako Eguna. Zona de Txosnas - Elexalde.
10:00 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Infantil. Errekalde Plaza.
12:00 Juegos populares Antzinako Eguna. Zona de Txosnas - Elexalde.
13:00 **III.TXAKOLINA & MUSIKA. The Van.** Mendibile Jauregia
14:00 Presentación de Paellas. Zona de Txosnas - Elexalde.
15:00 Comida Antzinako Eguna - Bertsolariak. Zona de Txosnas - Elexalde.
16:00 Entrega de premios Antzinako Eguna: concurso de paella. Zona de Txosnas - Elexalde.
16:00 Bingo Antzinako Eguna. Zona de Txosnas - Elexalde.
16:45 Euskaraoke Antzinako Eguna. Zona de Txosnas - Elexalde.
17:30 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Competición Popular. Errekalde Plaza.
18:00 **III.TXAKOLINA & MUSIKA. Lorelei Green – Afrika Bing**. Mendibile Jauregia
20:00 Antzinako Eguna. **SAKATU ELEKTROTXARANGA**. Boulevard.
23:00 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Fiesta Bloque luminoso. Errekalde Plaza.
00:00 Romería. **GARILAK 26.** Zona de Txosnas - Elexalde.

**Kirol ekintzak** · Actividades deportivas | **Txosna gunea** · Zona de Txosnas | **Koadrillak** · Cuadrillas

## domingo, EKAINAK 19 JUNIO, domingo

10:00 XII Encuentros de Ajedrez de Leioa. XII Torneo por equipos sub 16 y sub12. Colabora: Leioako Altzaga Xake Kirol Elkartea. Euskal Etxeen Plaza.
11:00 **V Encuentro de escalada de Leioa.** Escalada para tod@s. Errekalde Plaza.
12:00 **XX Edición CONCURSO DE JOTAS** Ayuntamiento de Leioa (categorías: infantil y mayores). J.R. Aketxe Plaza.
13:00 **III.TXAKOLINA & MUSIKA. Swintronics – Twist! DJ.** Mendibile Jauregia.

## asteartea, EKAINAK 21 JUNIO, martes

18:00 Campeonato de Baloncesto de San Juan. Organiza: Leioa Saskibaloi Taldea. Colegio Txomin Aresti.

## asteazkena, EKAINAK 22 JUNIO, miércoles

**DÍA INFANTIL EN LAS BARRACAS.** Plaza Lehendakari Agirre (Carbonera).

## osteguna, EKAINAK 23 JUNIO, jueves

11:30 Bailamos con la Tercera Edad. Sakoneta (Caja metáfisica).
19:00 Txupinazo y Lectura del Pregón: **MARI PEPA Y ARLOTE.** Ayuntamiento.
BAJADA de Cuadrillas. Recorrido: Elexalde, Iparragirre, Sabino Arana, Luis Bilbao Libano, Boulevard, J.R. Aketxe Plaza.
19:00 Apertura de txosnas. Zona de Txosnas -Elexalde.
19:45 Animación con **OIHAN VEGA.** Plaza J. R. Aketxe.
21:00 Pregón en las txosnas. Zona de Txosnas -Elexalde.
21:00 Sardinada. Zona de Txosnas -Elexalde.
22:00 GUNE MOREA. Punto de información y prevención contra las agresiones machistas. Boulevard - Ikurriña.
22:30 Romería. **URRATS.** Zona de Txosnas -Elexalde.
22:30 Espectáculo **NOCHE DE SAN JUAN. Cía. HORTZMUGA.** Boulevard.
23:15 Hoguera de San Juan. Ayuntamiento.
00:00 Akelarre de la noche de San Juan y romería. Zona de Txosnas -Elexalde.
00:00 **Servicio de acompañamiento a personas.** Boulevard. (00:00 – 06:00)
00:30 Concierto. **MOJINOS ESKOZIDOS – BOCA BEATS.** Aldapabarrena.
00:15 Chocolatada. J.R. Aketxe Plaza.
00:30 Romería. **URRATS.** Zona de Txosnas -Elexalde.

**Kirol ekintzak** · Actividades deportivas | **Txosna gunea** · Zona de Txosnas | **Koadrillak** · Cuadrillas

## ostirala, EKAINAK 24 JUNIO, viernes - (SAN JUAN)

10:00 Txupinazo.
12:00 Misa. Parroquia San Juan Bautista. Aurresku de honor.
12:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (12:00 – 15:00)
13:00 Fiesta de la espuma. Euskal Etxeen Plaza.
17:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (17:00 – 20:00)
18:00 Fiesta de la Tercera Edad. Polideportivo Kandelazubieta.
18:00 Caza Zorro Infantil Intercuadrillas. Pinosolo.
18:00 Caza Zorro Medianos Intercuadrillas. Plaza Ikea Barri.
19:00 Jokoperatiboak Mayores Inter-cuadrillas. Instituto Barandiaran - Sakoneta.
19:00 Actuación Infantil. **ROSA, KONTAIDAZU IPUIN BAT: HIRU LUMAK.** Euskal Etxeen Plaza.
19:00 Pasacalles con Txistularis.
19:00 **MATRAKA ELEKTROTXARANGA.** Zona de Txosnas -Elexalde.
19:30 Música. **MARIATXI DOMINGUEZ.** Plaza J.R. Aketxe.
20:00 Día del Deporte Vasco organiza LEIOAKO EUSKAL KIROL ZALEAK. Boulevard.
(en caso de lluvia Polideportivo Sakoneta).
XII Torneo de San Juan de Aizkolaris (10 troncos – 54 pulgadas)
Aitzol Atutxa / Zelai III & Ugaitz Mugerza / Julen Larrea
X Torneo de San Juan de Levantadores de piedra (cilíndrica de 100kg y cúbica de 100 kg)
"Izeta IV" - "Zelai V" / Arruti – Olaizola



20:00 Play – back Infantil Inter-cuadrillas. Kandelazubieta.
20:00 Actuación Musical.
**THE DERTY GERTIES.** Boulevard de Udondo.
**LES INCOGNITOS**. Euskal Etxeen Plaza.
**MAJARETA ROLLING BAND.** Ikea Barri Plaza.
20:30 Festival de pelota. Frontón Ayuntamiento.
21:00 Costillada. Zona de Txosnas -Elexalde.
21:15 Actuación Musical.
**MAJARETA ROLLING BAND.** Boulevard de Udondo.
**THE DERTY GERTIES**. Euskal Etxeen Plaza.
**LES INCOGNITOS.** Ikea Barri Plaza.
22:00 Ai Laket!! Programa Testing. Información y Análisis de sustancias. Plaza Ayuntamiento.
22:00 Play – Back Median@s Inter-cuadrillas. Kandelazubieta.
22:00 GUNE MOREA. Punto de información y prevención contra las agresiones machistas. Boulevard - Ikurriña.
22:30 Música. **KOPLAK AIREAN. MIREN eta ROBERTO ETXEBARRIA.** Auditorio Aldapa.
22:30 Actuación Musical.
**LES INCOGNITOS**. Boulevard de Udondo.
**MAJARETA ROLLING BAND**. Euskal Etxeen Plaza.
**THE DERTY GERTIES.** Ikea Barri Plaza.
23:00 Concierto. **ETS – LA TOPADORA.** Zona de Txosnas -Elexalde.
23:00 Concierto. **DOS PÁJAROS Y UN TRIO, SABINA y SERRAT.** Aldapabarrena.
23:00 Play – Back Mayores Inter-cuadrillas. Kandelazubieta.
00:00 **Servicio de acompañamiento a personas.** Boulevard. (00:00 – 06:00)


**Izan zaitez ERAGILE MOREA**

**Implícate contra la violencia sexista**

**EKAINAK 15 de JUNIO (18:30) KULTUR LEIOAN**



**!**

Leioa KULTURA

# SAN JUAN 2022 · EGITARAUA · PROGRAMACIÓN

**Kirol ekintzak** · Actividades deportivas | **Txosna gunea** · Zona de Txosnas | **Koadrillak** · Cuadrillas

## larunbata, EKAINAK 25 DE JUNIO, sábado

10:00 Txupinazo.
10:30 Concurso de Tortillas / Sándwiches Inter-cuadrillas. Boulevard.
11:00 Herri Kirolak Inter-cuadrillas. Boulevard.
12:00 Partido de Balonmano. Leioa Eskubaloia vs Selección Bizkaia. Sakoneta.
12:00 **IKUSI (LEIOA) MAKUSI.** Ikea Barri Plaza. Taller familiar de pintura. Edad 4 – 14
12:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (12:00 – 15:00)
12:00 **VEN A BAILAR ZUMBA.** ONG Zabalketa. "SolidaridUP, Movimiento Solidario de Leioa". Plaza J.R. Aketxe.
13:00 Fiesta de la espuma. Euskal Etxeen Plaza.
13:00 Actividades Infantiles 0 – 5 años. Plaza J.R. Aketxe.
14:00 Soka-Tira Inter-cuadrillas. Mayores. Boulevard.
15:00 Comida de Cuadrillas. Boulevard.
17:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (17:00 – 20:00)
17:00 Pruebas varias Intercuadrillas infantil / Median@s. Kandelazubieta.
17:00 Sokatira. **CAMPEONATO DE EUSKADI EN TIERRA** (600 kg). Boulevard de Udondo.
GAZTEDI "A" – GAZTEDI "B" – GOIHERRI – AKELARRE – MUTRIKU
17:00 Finales manomanista Escuela Club Hartzak. Polideportivo Sakoneta.
17:30 Actuación Infantil + Juegos Infantiles. ERIZ MAGOA. Zona de Txosnas -Elexalde.
17:30 Juegos Infantiles. Zona de Txosnas –Elexalde.
19:00 Bertsolaris.
**ALAIA MARTIN – AMETS ARZALLUS – AITOR BIZKARRA – OIHANA IGUARAN.**
Temas propuestos por: Xabier Sainz de la Maza. Boulevard.
19:00 Pasacalles con Txistularis.
19:00 Actuación Infantil. **BIZI-BIZI ZIRKUA.** KIKI, KOKO eta MOKO. Euskal Etxeen Plaza.
19:00 Pruebas varias Intercuadrillas. Mayores. Kandelazubieta.
19:00 Música. **BANDA DE MÚSICA DE LEIOA.** Plaza J.R. Aketxe.
19:30 Chocolatada. Zona de Txosnas -Elexalde.
19:30 Partidos de pelota mano. Promesas. Polideportivo Sakoneta.
Mikel Lekunberri & Gaizka Astigarraga / Eneko Landa & Beñat Landa
20:00 Actuación. **BBK DANTZARI IBILTARIA. AIKO TALDEA.** Auditorio Aldapa.
22:00 Ai Laket!! Programa Testing. Información y Análisis de sustancias. Caja Metafísica.
22:00 GUNE MOREA. Punto de información y prevención contra las agresiones machistas. Boulevard - Ikurriña.
22:30 Concierto. **URTZ + BEIETZ, Zeltik parranda.** Aldapabarrena.
22:30 Concierto. **LIHER – AMOOMA – BASAKI.** Zona de Txosnas -Elexalde.
00:00 **Servicio de acompañamiento a personas**. Boulevard. (00:00 – 06:00)

| Kirol ekintzak · Actividades deportivas | Txosna gunea · Zona de Txosnas | Koadrillak · Cuadrillas |
|---|---|---|

## igandea, EKAINAK 26 JUNIO, domingo - (Aurresku Anteiglesia)

10:00 Txupinazo y Pasacalles con Txistularis.
11:00 Misa. Parroquia San Juan Bautista.
11:00 Pesaje Soka Tira Infantil / Medianos Inter-cuadrillas. Boulevard Udondo.
12:00 Comienzo del **AURRESKU ANTEIGLESIA.** Ayuntamiento. Con el Coro de la Parroquia San Juan Bautista, Coro del Hogar de Jubilados de Errekalde y Orpheo Ganbera Abesbatza.
12:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (12:00 – 15:00)
12:00 Soka Tira Infantil / Medianos Inter-cuadrillas. Boulevard Udondo.
13:00 Fiesta de la espuma. Euskal Etxeen Plaza.
13:30 Lunch Aurresku Anteiglesia. Ayuntamiento.
13:30 Cronoescalada Cuadrillas. Infantil / Median@s. Aldapabarrena.
17:00 Actividades Infantiles. Errekalde Plaza. (17:00 – 20:00)
17:00 Vestido Barato Infantil/Median@s Intercuadrillas. Zona de Txosnas - Elexalde.
18:00 **ALARDE DE DANZAS** y Romería. Organiza Gure Ohiturak Dantza Taldea. Boulevard.
18:30 Vestido Barato Adultos Intercuadrillas. Zona de Txosnas - Elexalde.
19:00 Actuación Infantil. **BATIBURRILLO. FACTORIA DEL BARRIO.** Euskal Etxeen Plaza.
19:00 Bailables. **PÉRGOLA.** J.R. Aketxe Plaza.
19:30 Baile de la era. Boulevard.
21:00 Entrega de Premios Cuadrillas. Boulevard.
22:30 **Traca final y fin de fiestas.** Boulevard.

## astelehena, EKAINAK 27 JUNIO, lunes

**DÍA INFANTIL** EN LAS BARRACAS. Plaza Lehendakari Agirre (Carbonera).
FECHAS BARRACAS: 17 – 27 de junio.





# 27.000 APLAUSOS PARA LA XXII UMORE AZOKA

**27.000 ikus-entzule izan dira joan den maiatzaren 19tik 22ra bitartean programatutako 90 emanaldietan; bertan, herriko 18 eszenatokitan aritu diren Euskal Herriko 19 konpainia, Estatuko 16 konpainia eta nazioarteko 5 konpainia ikusi ahal izan dira.**

La ilusión por recuperar la normalidad tras dos años de parón derivados de la pandemia se ha visto reflejada en la XXII Edición de Umore Azoka-Feria de Artistas Callejeros de Leioa, que el pasado mes de mayo inundó de risas y aplausos las calles del municipio. El buen tiempo acompañó y propició la afluencia de 27.000 espectadores a las 90 representaciones programadas entre el jueves 19 y el domingo 22, que se celebraron sin incidencia alguna. El excelente balance pone de manifiesto la importancia del evento tanto para las compañías en escena como para el público que arrastran.

Y es que Umore Azoka reparte show para todos los públicos y en todos los formatos, con danza, teatro, circo, preformance, clown, instalaciones y música de todo tipo. Durante los cuatro días, se programaron 90 funciones de 40 compañías -19 vascas, 16 estatales y 5 internacionales- que actuaron en 18 emplazamientos escénicos




locales. El Ayuntamiento de Leioa concedió los premios Umore Azoka 2022 a las siguientes compañías:

- La compañía Orain Bi, Mejor Espectáculo Vasco por "Mute".
- Truca Circus (Andalucía), Mejor Espectáculo del Resto del Mundo por "¡Sopla!".
- Mención Especial del Jurado, para Maitane Sarralde por "Desºnuda". ■

## ORAIN BI

**Rodrigo Lacasa Montesek (Toli) eta Sara Álvarez Iglesiasek (Sarini) osatzen duten zirku-antzerki konpainiak hainbat diziplina akrobatiko erabiltzen ditu, pertxa akrobatikoa eta eskutik eskura izenekoa, besteak beste. Epaimahaiaren iritziz, "Mute" proposamen originala, atsegina eta zaindua da, eta emozioetan, sinpletasunean eta istorioaren garapenean egindako lanketa zainduagatik harrapatzen ditu ikusleak.**

## TRUCA CIRCUS

**Zirku garaikidea deritzonean espezializatuta dago eta 20 urteko ibilbidea du, eta "¡Sopla!" lana ekoiztu du LaNördika eta Hmnos. Infoncundibles-ekin batera. Epaimahaiak adierazi duenez, "zirkuko hainbat diziplinatan euren gaitasuna erakusten duten hiru konpainien arteko topaketa pozgarria izan da, erritmoz betetako aurkezpena, koreografia perfektuarekin, eta estetika sortzaile eta argitsuarekin".**





umore
azoka
LEIOA



"Presa barik baina eten barik disfrutatzeko gogoa genuen, eta lortu dugu. Umore Azoka oso egokia da jendearentzat eta sektorearentzat, eta mimatzen jarraituko dugu"

**Iban Rodriguez Etxebarria**
Leioako Alkatea



# CONTINÚA LA ELABORACIÓN DEL **NUEVO PGOU**

**HAPOren Aurrerakina idazteko lanak hasiko dira, dagozkion partaidetza saioen data berriekin.**

Tras finalizar la fase de diagnóstico del PGOU, comienza la elaboración del Avance, que es una especie de borrador avanzado de lo que será el nuevo Plan, con diferentes alternativas en lugares concretos.

Aurrerakina plan berriaren lehen zirriborroa da, eta leku zehatzetan alternatiba ezberdinak proposatuko ditu

**Nuevas fechas para las sesiones**

La participación ciudadana en esta fase estaba prevista para comienzos de junio, pero, para asegurar una mayor participación y mayor difusión de las fechas, se ha decidido atrasarlo a los días 20 (en Kultur Leioa), 21 (en Lamiako) y 22 de junio (San Bartolomé). Estas sesiones cuentan con una primera parte informativa, con el fin de explicar los resultados de la Fase de Diagnóstico, para, a continuación, participar en grupos de trabajo para profundizar y concretar propuestas para el Avance del PGOU.

Toda la información sobre sesiones, lugares, fechas y horarios se puede encontrar en la página web del PGOU. Asimismo, es posible acceder a los diferentes documentos que se han ido generando hasta la fecha.

Además, dentro de la participación institucional, también se convocará al Consejo Asesor de Planeamiento para dar cuenta del estado del proceso de revisión del PGOU, así como de la documentación elaborada en la fase del Diagnóstico.

Una vez finalizada la redacción del Avance, se expondrá al público y se llevarán a cabo con nuevas acciones participativas.

**Modificación PGOU en Lamiako**

En lo que a la propuesta de modificación del PGOU en el entorno de la Dársena de Lamiako, tal y como se anunció en la revista del mes de mayo, el miércoles 18 de mayo se hizo la sesión informativa en Kultur Leioa. Hasta el 30 de junio de 2022 está el abierto el plazo para recibir aportaciones al respecto.■

+ INFO:

**https://leioazabalik.leioa.net/**

Gure bezeroekin batera egiten dugu lan haien beharretarako konponbiderik onena bilatuz.

Markako, editorialeko, publizitateko eta argitalpenetako zerbitzuak eskaintzen ditugu.

20 urte baino gehiago lanean enpresen komunikazio arloan.

OMA

zirrarak sortarazteko grina
pasión por crear emociones

www.oma3.com | info@oma3.com | 944 106 094

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO

conservatorio
udal musika eskola
leioa

# LEIOAKO KONTSERBATORIOA
# UDAL MUSIKA ESKOLA

**Enseñanza Reglada (Conservatorio) y No Reglada (Escuela de Música)**

Irakaskuntza Arautua (Kontserbatorioa) eta Ez Arautua (Musika Eskola)



# MATRIKULA ZAITEZ
## Matricúlate
## 2022-2023 !

## MATRIKULAZIO-EPEA
Maiatzaren 2tik
ekainaren 30era

INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR BADUZU, ZATOZ GU EZAGUTZERA EDO KONTSULTATU GURE WEBGUNEA. GAINERA, YOUTUBEKO KANALA DUGU; GURE JARDUERETAKO ASKO JARTZEN DITUGU BERTAN



- 18 instrumentu-espezialitate
- Musika hastapena
- Maila desberdinetako banda eta orkestrak
- Abesbatzak adin guztietarako
- Helduentzako tailerrak
- Musikoterapia

SI NECESITAS MÁS INFORMACIÓN VEN A CONOCERNOS O CONSULTA NUESTRA WEB. TAMBIÉN TENEMOS CANAL DE YOUTUBE DONDE PONEMOS MUCHAS DE NUESTRAS ACTIVIDADES

## PLAZO DE MATRICULACIÓN
Del 2 de mayo al 30 junio

Iparraguirre 76 - LEIOA
94 463 86 83

**ARRETA ORDUTEGIA**
Horario de atención:
10:00-18:00 h

- 18 especialidades instrumentales
- Iniciación musical
- Bandas y orquestas de diferentes niveles
- Agrupaciones corales para todas las edades
- Talleres para personas adultas
- Musicoterapia

**IKUSI GURE JARDUERETAKO BATZUK**

Échale un vistazo a alguna de nuestras actividades

**GURE IRAKASLEEK "MERKATU PERTSIAR BATEAN" SARTZERA GONBIDATZEN ZAITUZTETE**

Nuestros/as profesores/as os invitan a entrar "En un Mercado Persa"

# NERABE PROGRAMAK LEHEN HEZKUNTZATIK BIGARREN HEZKUNTZARAKO IGAROTZEA BABESTEN DU

**Con el objetivo de proteger el paso de Educación Primaria a Educación Secundaria, el programa Nerabe ha realizado talleres dinámicos y participativos tanto con el alumnado, como con sus familias y profesorado.**

Udaleko Hezkuntza Sailak, Nerabe programaren bidez, LH6 eta DBH1 ikasturteetan jarri gura izan du arreta. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara aldatzea, askotan, ez da batere prozesu erraza izaten ikasleentzat, haien familientzat eta irakasleentzat.

Gure adingabeak babestea eta zaintzea da lanik garrantzitsuena, bai eskolarentzat, bai familiarentzat. Hezkuntzako bi eragileek helburu bera dute ikasleen garapen integrala bultzatzeko, eta Udala zeregin horretan laguntzen saiatu da. Nerabezarora igarotzean (askorentzat bat dator ikastetxetik institutura igarotzearekin), zaintza hori are garrantzitsuagoa bihurtzen da bizitzako une garrantzitsu horren ezaugarri bereziarengatik, batzuetan nerabeentzat zaila delako etapa horrek dakartzan ziurgabetasuna eta aldaketa fisiko eta emozionalak kudeatzea.

Nerabe programan zehar eta Ongizate bitartekaritza elkartearen eskutik, tailer dinamikoak eta parte-hartzaileak egin dira ikasleekin, familiekin eta irakasleekin. Horietan, hainbat gai hausnartu, landu eta barneratu dira, eta, besteak beste, etapa horren arriskuak identifikatu eta aztertu dira, bai eta haien bizitzako eremuetan (pertsonala, harremanetakoa, familiakoa,

**Todos los agentes participantes han valorado positivamente tener la oportunidad de dedicar un espacio y tiempo a la gestión de este momento de cambio, de crecimiento, de desarrollo.**

**Resumiendo las valoraciones:**

- **Las familias de sexto curso de Enseñanza Primaria han manifestado su deseo de seguir con esta formación en la ESO.**
- **Los equipos de centro han considerado que han aprendido mucho durante estos talleres y han agradecido la ayuda que les ha proporcionado el programa.**
- **Y el alumnado ha admitido sentirse mejor al haber podido hablar sobre lo que les preocupa y haber hallado cómo llevar mejor esas preocupaciones.**



komunitatekoa eta eskolakoa) aplika daitezkeen babeserako faktoreak ere.

Hainbat helburu bete dira, horien artean etapa honetan sortzen hasten diren beharrak ezagutzea, bai nerabearen ikuspegitik, bai familiaren ikuspuntutik, eta horiei aurre zelan egin; familia eta eskola inguruko emozioak identifikatzea, eta, garai hauetan, baita pandemiaren ingurukoak ere; gurasoen eta seme-alaben arteko loturak landu dira; bai eta gatazkak aukera zelan bihurtu ere.

Parte hartu duten eragile guztiek modu positiboan baloratu dute aldaketa-, hazkunde- eta garapen-une horren kudeaketari tarte eta denbora eskaintzeko aukera izatea. Balorazioak laburbilduz, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako familiek DBHn prestakuntza horrekin jarraitzeko gogoa adierazi dute; ikastetxeko taldeek tailer horietan asko ikasi dutela uste dute eta programak eman dien laguntza eskertu dute; eta ikasleek hobeto sentitzen direla onartu dute, kezkak sortzen dizkieten gauzei buruz berba egin eta kezka horiek zelan hobeto eraman ikasi dutelako. ■



# HAURREN AURREKONTU IREKIAK AURRERA DOAZ

Amaitu da Leioako Haurren Aurrekontu Irekien bozketa fasea. Apirilean 7 proiektuen artean haien gogokoenak bozkatzeko aukera izan zuten Leioan erroldatuta dauden 7 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek. Guztira, 436 pertsona parte-hartu duzue bozketa fase honetan eta Leioako Umeen Kontseiluaren partez eskerrak eman nahi dizuegu.

Apirila eta maiatzeko saioetan, Umeen Kontseilua prozesu osoaren ebaluazio bat egiten ibili da. Izan ere, Haurren Aurrekontu Irekiak ospatzen diren lehenengo urtea izan da eta datozen urteei begira hainbat hobekuntza proposatu dituzte. Hala ere, oso argi daukate udalaren erabakietan haurren iritziak kontuan izatea beharrezkoa dela eta hemendik aurrera, Haurren Aurrekontu Irekiak ospatzen jarraitu behar dutela.




Ekainean Alkatearekin biltzen dira elkarrekin bozketaren emaitzak ikusteko. Umeen Kontseiluko partaideek prozesu guztiaren inguruan egindako ebaluazioa partekatuko dute Iban Rodriguezekin eta aurrera eramango diren proiektuak zehaztuko dituzte. Adi egon, hurrengo hilabeteetan bozketaren irabazleak izan diren eta aurrera eramango diren proiektuak zeintzuk diren esango dute eta. ■

# LEIOA, **BIZIKIDETZAREN ALDE**

**Mayo y junio son meses en los que el Ayuntamiento pone el foco en la convivencia denunciando la discriminación que sufre el colectivo LGTBIQ+**

Maiatzaren 17a eta ekainaren 28a funtsezkoak dira LGTBIQ+ kolektiboko pertsonek jasaten dituzten diskriminazioak salatzeko. Udalak bizikidetzan jartzen du arreta, haien eskubideak aldarrikatuz, eta ekainaren 28an diskriminazio horien aurka eta kolektiboaren eskubideen aldeko adierazpen instituzionala egingo du, haien borroka babestuz.

Gizarte inklusiboa, anitza, bidezkoagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa lortzeko ahaleginak batzea herritar guztien zeregina da. Orientazio sexualagatik eta generoagatik bereizkeriarik egiten ez duen berdintasunezko gizartea.

Es tarea de toda la ciudadanía aunar esfuerzos para conseguir una sociedad inclusiva, diversa, más justa, respetuosa e integradora. Una sociedad igualitaria en la que no se den discriminaciones por motivo de orientación sexual y de género

Kanpainak irauten duen bi hilabete hauetan, sentsibilizazio-materiala bidali da Leioako ikastetxeetara, ikastetxeetako jolastokietan eserlekuak eta jolasak LGTBIQ+ banderaren kolorearekin margotu dira, ikastetxeak gune seguruak direla erakusteko, umeek euren generoa, identitatea eta orientazio sexuala askatasunez adieraz dezaten.

LH4n, DBH1en eta DBH4n gai horiek lantzeko tailerrak egin dira. Gainera, beste emakume batzuekin harremanak dituzten emakumeen sexualitateari eta erotikari buruzko tailerra egin da Emakumeentzako Leioako Laket Ahalduntze Eskolan.

LGTBI fobiaren kontrako kartelak ere banatuko dira. Udal bulegoetan ez ezik, udalerriko ostalaritzan ere ikusgai egongo dira eta jaietan gurekin izango ditugu. Eta Kultur Leioan eta udaletxeko balkoian jarritako banderak bi egun horiek pasatu arte egongo dira bertan. ■



Carteles contra la LGTBI fobia repartidos por el municipio y banderas en la balconada del Ayuntamiento y en Kultur Leioa ondearán hasta finales de este mes de junio




**KAKARIK ETA TXIZIK GABEKO KALEAK ETA LORATEGIAK IZATEKO**

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO



## ZORIONAK
## MAIDER, IRAIA eta UXUE

El Concejal de Bienestar Social, Sanidad, protección animal, personas mayores y Cooperación al Desarrollo, Juan Carlos Martínez Llamazares, hizo entrega el pasado 24 de mayo del premio del VI Concurso de carteles dirigido a los centros educativos de Leioa contra las agresiones sexuales y sexistas a las alumnas de DBH2 del Colegio Mercedarias: Maider De Sansiderio, Iraia Ruiz y Uxue Sobrino. El premio se trata de un cheque por valor de 725,85 euros, que el centro podrá gastar en una actividad o material coeducativo. ■

---

# GAZTEGUNE ADAPTA SU HORARIO AL RITMO DEL VERANO

**Ekainaren 25etik irailaren 6ra, Gazteguneak ordutegia aldatuko du eta goizez bakarrik irekiko da.**

A partir del próximo 25 de junio, los y las leioztarras tendrán que aprovechar las mañanas para acudir al Gaztegune ya que su horario se verá modificado y tanto Aterpe Leioa Gaztegunea como el Aula de Estudio abrirán de lunes a viernes, en horario de 9:00 a 14:00 horas. El Aterpe Leioa Gaztegunea, además, permanecerá cerrado los fines de semana y el mes de agosto.

- Gazteguneak eskaintzen dituen zerbitzuak, horien programazioa eta jarduueretarako eta tailerretako izena emateko, blog honetan:

  **gaztegunedigitala.blogspot.com**

- Modu berean, edozein zalantza, iradokizun... egiteko, kontaktu hauek:

  **ATERPE LEIOA GAZTEGUNEA**
  **Aldapabarrena, 2 · 48940 Leioa (Bizkaia)**
  **94 405 58 50 // gazte@leioa.net**

Leioa GAZTEA

# Hartu eta zabaldu EUSKARAren kolorea!



**MAILA GUZTIAK**
HABEren mailak egiaztatzeko ikastaroak

## UZTAILA

Hasi ekainaren 29an
Amaitu uztailaren 22an
Ordutegia: 8:00-13:30

## 93,00 €

**Aurrematrikula datak: ekainaren 1etik 22ra**
(aurrematrikula egiten denean 20€ aurreratu behar dira)


**MASTITXU EUSKALTEGIA**

Iparragirre etorbidea, 78
48940 - LEIOA

euskaltegi@leioa.eus
euskaltegileioa.com

t 94 464 00 02



HABEK diruz lagundua



# **KIROLA FAMILIAN AIRE ZABALEAN**, UDARI ONGI ETORRIA EMATEKO

**Leioa se llena de torneos, salidas deportivas y exhibiciones de diferentes disciplinas durante todo el mes de junio.**

Udalak, hainbat klub eta erakunderekin batera, kirol programa osoa prestatu du ekainerako. Uda sasoiari hasiera ematen dion hilabetean padel txapelketak, gimnasia erritmikoko erakustaldiak, familian egiteko irteerak eta kirol ibilbideak, txirrindularitza itzulia eta irristaketa txapelketa izango dira, besteak beste.

Lehenengo jarduera ekainaren 3an eta 4an egin zen, ikastarogileei zuzendutako padel txapelketa.

Larunbat horretan bertan, ekainaren 4an, Saskibaloiaren Eguna ospatu zen Kandeluzubietan, 9:00etatik 22:00etara, klubeko maila ezberdinen arteko hainbat partida jokatu ziren jardunaldian. Gurasoek ere hartu zuten parte. Gainera, asteburu horretan, eta Leioa Ibaraki A.F.T elkartearen 20. urteurrena zela eta, maila ezberdinetako 30 partida baino gehiago hartu zituen txapelketa egin zen. Asteburua amaitzeko, igandean, hilak 5, 11:00etatik 13:30era, ate irekien eguna egin zen Boulevardean. Jardunaldi horrekin, klub bakoitzak egiten dituen jarduerak erakutsi ziren. Gainera, hiru hiruren kontrako partidak jokatu ziren klubetako kideen artean Athletic Fundazioak ekitaldirako utzitako kantxa batean.

Hurrengo larunbatean, ekainak 11, berriro ekingo zaie jarduerei Boulevardean. Oraingoan, ziklo saio bat egingo da 10:00etatik 14:00etara.



Igandean, ekainak 12, txirrindularitza itzulia izango da, eta aurten, ohiko ibilbideaz gain, klubetako txirrindularitza eskoletatik hainbat irteera izango ditu. Igandea osatzeko, Sakonetak gimnasia erritmikoko hainbat erakustaldi hartuko ditu egun osoan zehar.

Ekainaren 16an, osteguna, irristaketa txapelketa egingo da Kandelazubietan eta garaikurra arratsalde horretan bertan banatuko da, 18:00etatik 20:00etara, Leioako Udaletxean.

Ekainaren hirugarren asteburuan V. Eskalada Topaketa egingo da Boulevardean. Hiru egunetan zehar, etxeko txikienek zein gazte eta helduek kirol honekin zerikusia duten jarduerez gozatzeko aukera izango dute. Ostiralean eta larunbatean Txapelketa egingo da eta igandean, berriz, egin gura duten guztiek egin ahal izango dute.

Ekainaren 18an, larunbata, Leioako jaien barruan, Leioa Mendi Taldeak eta Bideko Orientazio Klubak antolatutako orientazio irteera egingo da. Lehenengoa, Leioako erdigunetik abiatuko den hiri inguruko ibilaldia izango da. Asfaltatutako hainbat bidetatik ibilbidea egingo da, orientazio klasikoko probaren irteeran egongo den elkargunera iristeko. Bigarren zatia kirol-orientazio klasikoko proba kronometratua izango da, eta EHU inguruan egingo da. Orientazio Lasterketak edo Orienteering gune jakin batetik ibilbide bat egitea da, soilik mapa baten eta iparrorratz baten laguntzarekin.

Ekainaren 23an, San Joan gauarekin eta herriko jaiekin bat etorrita, hirugarren adinekoentzako dantzaldiak egingo dira, 11:30etik 12:30era. Ostiralean, ekainak 24, euskal kirolaren eguna ospatuko da eta aizkolari txapelketa eta harri-jasotzaileak izango dira 20:00etatik 21:00etara. Larunbatean, ekainak 25, eskubaloi partida jokatuko da Leioako selekzioaren eta Askartzako selekzioaren artean. Gainera, hainbat pilota partida izango dira. ■

## TRIUNFO EN EL CAMPEONATO DE EUSKADI DE PATINAJE ARTÍSTICO

**Los pasados 14 y 15 de mayo se celebró en el Polideportivo Municipal de Rekalde el Campeonato de Euskadi de Patinaje Artístico 2022. Los leioaztarras Ander Margariño y Ane Puccini consiguieron el Oro en sus respectivas categorías, senior masculino y cadete. A su vez, la patinadora de categoría infantil Verónica Vidal y la senior femenino Olaia García consiguieron el Bronce. Por último, uno de los galardones de la categoría junior se lo llevó la patinadora de Irristaketa Taldea, Iraia Sardón.** ■





## LAMIAKO RETOMA SU MASKARADA

Tras dos años sin celebraciones, Lamiako ha vuelto a dar el pistoletazo de salida a las fiestas veraniegas de los barrios de Leioa. Su tradicional Maskarada ha regresado a sus calles con unas fiestas de San Máximo repletas de buen ambiente. ■











Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO

www.leioa.eu